

# *Irabazi-iturriak*

Irabazi-iturriak zenbat ordaintzeko prest daude bezeroak emandako balioagatik. Gure negozioak hiru irabazi iturri izango ditugu.

- Gure ustez negozioaren irabazi iturririk handiena menuak izango dira horregatik pentsatzen dugu gure irabazien %75 izango direla.
- Bestalde, gure ikerketen arabera etortzen diren bezeroetatik gutxienez zazpitik batek dendan erosiko du, beraz, dendetik lortutako dirua irabazien %10a izango dela kalkulatu dugu.
- Gainera, gobernutik diru laguntzak jasoko ditugu inmigranteen integrazioan lagunduko dugulako eta zenbait ONGrekin kolaboratuko dugulako. Hortaz, gobernuak emandako dirua gure irabazien %15a izango da. Oraindik ez dakigu menuak zenbat kostatuko dute baina menuak egiteko produktuak kostatzen direnaren bikoitza kobratuko dugu, produktuaz gain zerbitzariak eta lokala ere ordaindu behar ditugulako eta horrela tarte bat izango dugu irabaziak izateko. Dendan, munduko leku desberdinetako produktuak izango ditugu. Normalean atzerritik produktuak ekartzea garestia izaten da, hala ere, ahalik eta merkeen saltzen saiatuko gara salmenta gehiago izateko baina etekina izanda.

Menuak egiteak 7 euro kostatuko zaigu egitea eta gu 14 eurotan salduko dugu, ura, ogia eta postrea barne. Beste aldetik, diru laguntzak jasoko ditugunez menuak merkeak izango dira. Dendan egongo diren produktuak 5 eta 15 euro bitartean egongo dira.

Asteko egunak	Menuaren prezioa	Bezero kantitatea	Diru irabaziak
Astelehenetik-Ostegunera	14 euro	70 pertsona/egunero	3920 euro/ 4 egunetan

Ostiraletik- lgandera	15,50 euro	90 pertsona egunero	4185 euro/ 3 egunetan
Guztira astero			8105 euro
Guztira hilabetero			32420 euro